# ZERGA ARAUDIAREN GAURKOTASUNA
# ACTUALIDAD NORMATIVA TRIBUTARIA

OGASUN ETA FINANTZA SAILA
ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS
DIRECCIÓN DE ADMINISTRACIÓN TRIBUTARIA

2024

11 ZK.
azaroa

N.º 11
noviembre

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

BOTHA — BOLETÍN OFICIAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

BOB — BOLETÍN OFICIAL DE BIZKAIA

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

BOPV — BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Boletín Oficial de Navarra

BOE — BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO



BOTHA
BOLETÍN OFICIAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

## ALHAO — 125 zk. — 2024/11/04

**BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN FINANTZA ETA AURREKONTU, SAILEKO FORU DIPUTATUA, 555/2024, FORU AGINDUA, IRAILAREN 30KOA, ALDATZEA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO DIPUTATUAREN OTSAILAREN 4KO 38/2015 FORU AGINDUA, ONARTZEN DITUENA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN 303 'AUTOLIKIDAZIOA' ETA 322 'ERAKUNDE TALDEA' EREDU BERRIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak 26. artikuluan ezartzen duenez, balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundua da, eta estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura arautzeko. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpen eta

## BOTHA — N.º 125 — 04/11/2024

**ORDEN FORAL 555/2024, DE LA SEGUNDA TENIENTE DE DIPUTADO GENERAL Y DIPUTADA FORAL DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS, DE 30 DE SEPTIEMBRE QUE MODIFICA LA ORDEN FORAL 38/2015, DEL DIPUTADO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS, DE 4 DE FEBRERO, DE APROBACIÓN DE LOS NUEVOS MODELOS DEL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO, 303 AUTOLIQUIDACIÓN Y 322 GRUPO DE ENTIDADES.**

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece en su en su artículo 26 que el Impuesto sobre el Valor Añadido es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado. Las Instituciones

sarrera ereduak onesteko eta likidazio aldi bakoitzeko sarrera epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Duela gutxi, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak 2024ko abenduaren 31ra arte luzatu du zenbait elikagai emateren gaineko zerga tasa murriztuen eta dagozkien baliokidetasun errekarguen aplikazioa (Errege Lege Dekretu horren bidez, luzatu egiten dira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri, eta premiazko neurriak hartzen dira arlo fiskal, energetiko eta sozialean).

Agindu honen xedea da 303 eta 322 ereduak aurreko paragrafoan aipatutako xedapenek zerga tasei dagokienez egindako aldaketetara egokitzea.

competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado

Recientemente, el Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social, ha prorrogado hasta el 31 de diciembre de 2024 la aplicación de tipos impositivos reducidos, y sus correspondientes recargos de equivalencia, a determinadas entregas de alimentos.

Esta orden tiene por objeto adaptar los modelos 303 y 322 a los cambios en materia de tipos impositivos introducidos por las disposiciones citadas en el párrafo anterior.

BOB
BOLETÍN OFICIAL DE BIZKAIA

BAO — 213 zk. — 2024/11/05

4/2024 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, URRIAREN 24KOA, ALDE BATETIK NEURRI JAKIN BATZUK LUZATZEN DITUENA, UKRAINAKO ETA EKIALDE HURBILEKO GATAZKEN ONDORIOZKO ONDORIO EKONOMIKO ETA SOZIALEI ERANTZUTEKO ETA, BESTETIK, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO AZAROAREN 9KO 7/1994 FORU ARAUA ALDATZEN DUENA.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak 26. artikuluan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga itundua dela eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau sustantibo eta formal berberak beteko dituzte.

2022. urtearen hasieratik eta egunera arte Lurralde Erkidean hainbat neurri-multzo onartu dira Ukrainako gerrak Espainian eragiten dituen ondorioei aurre egiteko. Neurri hauek egoera ekonomiko eta sozialaren bilakaeraren arabera egokitu dira. Zergen arloan premiazko neurrien funtsezko helburuetako bat prezioei eustea eta prezioen egonkortasuna indartzea izan da.

Bizkaiko Lurralde Historikoan lurralde erkidean hartutako arauak egokitu dira; egokitzapen hori bidezko foru dekretu arauemaileen bidez egin da. 2023. urtearen hasieratik hartutako neurriei erantzunez elikagaien, lehengaien eta bitarteko ondasunen prezioak moteltzen joan ziren eta merkatuak ziurgabetasun geopolitiko iraunkorrera egokitzen. 2024ko lehen seihilekoan prezio orokorren hazkundeak moteltzen jarraitu du, eta aurreikuspenen arabera, hala egiten jarraituko du.

Hala erakusten du 2023ko otsailetik aurrera KPIk izan duen bilakaerak, eta usteen arabera beheranzko joera horrek jarraitu egingo du datozen urteetan ere, 2025ean %1,9ko inflazio-maila aurreikusiz eta 2026an %1,7koa. Bilakaera horri lotuta ezarritako neurriak pixkanaka erretiratzea aurreikusten da, eta hartutako neurriekin jarraitzea justifikatzeko aukera ematen du.

2024rako aurreikuspenak gorabehera urteko lehen hilabete hauetan inflazioak gora egin du, 2023ko amaieran gatazka sortu zelako Ekialde Hurbilean, eta krisi energetikoari dagokionez laguntzeko neurriak partzialki itzuli dira. Hala ere, neurri horiek, hala nola elektrizitatearen, gasaren edo elektrizitatearen zerga bereziaren BEZari lotutakoak, kentzerakoan aplikatutako mailakotasunak inflazio-mailen gaineko eragina nabarmen arintzea ahalbidetu zuen.

Era berean, azpiko inflazioaren bilakaerari erreparatu behar zaio. Testuinguru horretan, funtsezko intsumo batzuen zeregina nabarmendu behar da, hala nola elikagaiena, horien prezio-mailak inflazio orokorra baino handiagoak izaten jarraitzen baitu sistematikoki. Zehatzago esanda oliba-olioaren prezioak %44,4 igo ziren 2023an.

Hala ere, nahiz eta aurreikusten den elikaduraren prezioek behera egingo dutela, inflazio orokorraren ildotik, Espainiako Bankuak berriki argitaratu duen

BOB — N.º 213 — 05/11/2024

DECRETO FORAL NORMATIVO 4/2024, DE 24 DE OCTUBRE, POR EL QUE SE PRORROGAN DETERMINADAS MEDIDAS PARA AFRONTAR LAS CONSECUENCIAS ECONÓMICAS Y SOCIALES DERIVADAS DE LOS CONFLICTOS EN UCRANIA Y ORIENTE PRÓXIMO Y SE MODIFICA LA NORMA FORAL 7/1994, DE 9 DE NOVIEMBRE DEL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 26, que el Impuesto sobre el Valor Añadido, es un impuesto concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

Desde comienzos del año 2022 y hasta la fecha, en el ámbito del Territorio común, se han ido aprobando diversos paquetes de medidas con el objetivo de afrontar las consecuencias en España de la guerra de Ucrania, que se han ido adaptando a la evolución de la situación económica y social.

En el marco fiscal, uno de los objetivos fundamentales de las medidas urgentes ha sido la contención de los precios y el refuerzo de la estabilidad de precios. La adaptación de las normas adoptadas en el ámbito del territorio común se ha realizado en el Territorio Histórico de Bizkaia mediante los correspondientes Decretos Forales Normativos. Como respuesta a las medidas adoptadas, desde principios de 2023, los precios de los alimentos, las materias primas y los bienes intermedios se fueron moderando y los mercados adaptando a la incertidumbre geopolítica persistente.

En el primer semestre de 2024 el crecimiento de los precios generales se ha seguido moderando y las previsiones son que sigan haciéndolo. Así lo refleja la evolución del IPC desde febrero de 2023 y se espera que esta tendencia descendente continúe en los próximos años previendo niveles de inflación del 1,9% en 2025 y 1,7% en 2026.

Esta evolución, en la cual se prevé la retirada gradual de las medidas establecidas, permite justificar la continuación de las medidas adoptadas. A pesar de las previsiones para 2024, en estos primeros meses de año se ha producido un repunte de la inflación debido a la irrupción del conflicto en Oriente Medio a finales de 2023 y la reversión parcial de las medidas de apoyo ante la crisis energética. No obstante, la gradualidad en la retirada de estas medidas, como las vinculadas al IVA de la electricidad, del gas o del impuesto especial de la electricidad, permitió notablemente aliviar el efecto sobre los niveles de inflación.

Del mismo modo, es necesario prestar atención a la evolución de la inflación subyacente. En este contexto, se debe destacar el papel de ciertos insumos fundamentales, como los alimentos, cuyos niveles de precios siguen siendo sistemáticamente superiores a la inflación general. En concreto, el aceite de oliva incrementó sus precios en un 44,4% en el 2023.

Sin embargo, a pesar de que se prevé que los precios de la alimentación desciendan, en línea con la inflación general, el Banco de España publicó

aurreikuspenean baieztatzen du 2024an elikagaien prezioek batez beste %4,5 egingo dutela gora. Horregatik, eta intsumo hauek betetzen duten oinarrizko zeregina kontuan hartuta, komenigarria dirudi bakarrik funtsezko sargai horien prezioaren igoera arintzeko neurriak aldi baterako luzatzea.

Hala, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, elikagaien entrega jakin batzuei murriztutako zerga-tasak aplikatzeko epea 2024ko abenduaren 31ra arte luzatzea sartzen da orain.

Ildo horretatik, martxoaren 7ko 1/2024 Foru Dekretu Arauemaileak, besteak beste, luzatu egin zuen 2024ko lehen seihilekoan Balio Erantsiaren gaineko Zergan elikagaien oinarrizko produktuei dagokien ehuneko 0ko zerga-tasa aplikatzeko epea; era berean, oliba-olioak eta hazi-olioak eta elikadura-pastak zergapetzen dituen ehuneko 5aren luzapena ezarri zuen, elikagai horien azken prezioa murrizten laguntzeko.

Horrela, besteak beste, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, jarraipena eman zitzaion otsailaren 28ko 1/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 6. artikuluan ezarritako BEZaren murrizketari; murrizketa horren indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaitu zen, eta, beraz, zenbait elikagairi BEZa jaitsi zitzaien 2024ko ekainaren 30era arte.

Lurralde erkidearen eremuan duela gutxi argitaratu da ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituena eta zerga, energia eta gizarte arloan premiazko neurriak hartzen dituena.

Zehatzago esanda, elikagaien inflazioak datozen hilabeteetan bilakaera positiboa izan dezan eta, aldi beran, salbuespenezko neurri hau pixkanaka kentzeko, elikagai batzuen BEZa ehuneko 5era (elikadura-pastak eta hazi-olioak) eta ehuneko 0ra (lehen mailako elikagaiak eta oliba-olioak) jaisten jarraituko da 2024ko irailaren 30era arte. Data horretatik aurrera inflazioa nabarmen murriztuko dela aurreikusten da, eta ehuneko 7,5 eta 2 igoko dira zerga-tasak, hurrenez hurren, abenduaren 31ra arte. Une horretan prezioen murrizketak salbuespenezko neurri iragankor hau kentzea ahalbidetuko du.

Oliba-olioaren entregei aplikatu beharreko zerga-tasari dagokionez, aurreko ehuneko 5etik ehuneko 0ra murrizten da irailaren 30era arte, eta %2ko tasan zergapetuko da 2024ko urriaren 1etik abenduaren 31ra arte, eta lehen mailako elikagai gisa finkatzen da 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera ehuneko 4ko tasa super murriztuan, eta horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua mugagabe aldatzea eskatzen du.

Arestian aipatutako Ekonomia Itunaren 26. artikulua bete behar denez, adierazi diren aldaketak sartu behar dira, foru dekretu arauemaile honen bidez, Bizkaiko tributu-ordenamenduan; hala, ukitutako zergen araubide juridikoa eguneratuko da.

Aipatutako guztia dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 8. artikuluan jasotako baimena baliatuz (artikulu horretan ezarritakoaren arabera, Foru Aldundiak zergen eremuan foru arauaren mailarekin xedapen arautzaileak eman ditzake eta foru dekretu arautzaileak deritze. Nolanahi ere, hori egiten da xedea esklusiboki Bizkaiko Lurralde Historikoaren legeria moldatzea bada, Ekonomia Itunarekin bat, lurralde historikoan araubide erkidegoko lurraldean dauden arau substantiboak eta formalak egon behar dutenean), Ogasun eta Finantzen foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Aldundiak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau.

recientemente su previsión de que en 2024 los precios de los alimentos aumentarán de media un 4,5%. Por ello, y teniendo en cuenta el papel básico que cumplen estos insumos, parece aconsejable una prórroga temporal únicamente de las medidas destinadas a mitigar el aumento del precio de dichos insumos fundamentales.

Así, en relación con el Impuesto sobre el Valor Añadido, se incluye ahora una prórroga temporal hasta el 31 de diciembre de 2024 de la aplicación de tipos impositivos reducidos a determinadas entregas de alimentos.

En este sentido, el Decreto Foral Normativo 1/2024, de 7 de marzo, estableció entre otras cuestiones, una prórroga, durante el primer semestre de 2024, de la aplicación en el Impuesto sobre el Valor Añadido del tipo impositivo del 0 por ciento que recae sobre los productos básicos de alimentación, así como la del 5 por ciento con que resultan gravados los aceites de oliva y de semillas y las pastas alimenticias, para contribuir a la reducción del precio final de estos alimentos.

Así, entre otras medidas, en relación con el Impuesto sobre el Valor Añadido, se dio continuidad durante seis meses a la reducción del IVA establecida en el artículo 6 del Decreto Foral Normativo 1/2023, de 28 de febrero, cuya vigencia finalizó el 31 de diciembre de 2023, de manera que se estableció una rebaja del IVA de determinados alimentos hasta el 30 de junio de 2024.

En el ámbito del territorio común, recientemente se ha publicado el Real Decreto-Ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social.

En concreto, con objeto de favorecer una evolución positiva de la inflación de los alimentos en los próximos meses, así como la eliminación paulatina de esta medida excepcional, se mantiene la rebaja del IVA de ciertos alimentos en los tipos del 5 por ciento (pastas alimenticias y aceites de semilla) y del 0 por ciento (alimentos de primera necesidad y a los aceites de oliva) hasta el 30 de septiembre de 2024. A partir de dicha fecha, para la que ya se estima una reducción significativa de la inflación, se incrementarán los tipos impositivos al 7,5 y 2 por ciento, respectivamente, hasta el 31 de diciembre, momento en el que la reducción de precios va a permitir la supresión de esta medida excepcional y transitoria.

En relación con el tipo impositivo aplicable a las entregas de aceite de oliva, se reduce desde el 5 por ciento precedente al 0 por ciento hasta el 30 de septiembre, pasando a tributar al tipo del 2 por ciento desde el 1 de octubre hasta el 31 de diciembre de 2024 y se consolida como alimento de primera necesidad en el tipo súper reducido del 4 por ciento a partir del 1 de enero de 2025, lo que exige una modificación de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre del Impuesto sobre el valor Añadido con carácter indefinido, a estos efectos.

Para dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 26 del Concierto Económico, se hace necesario introducir en el ordenamiento tributario de Bizkaia las modificaciones aludidas, adaptando de esta forma el régimen jurídico de los impuestos afectados mediante el presente Decreto Foral Normativo.

Por todo lo anteriormente expuesto, y en virtud de la autorización contenida en el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en la que se recoge que la Diputación Foral podrá dictar disposiciones normativas con rango de Norma Foral en materia tributaria, denominadas Decretos Forales Normativos, en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la legislación del Territorio Histórico de Bizkaia, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común, a propuesta de la diputada foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación de

la Diputación Foral.

## BAO — 224 zk. — 2024/11/20

### OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 422/2024 FORU AGINDUA, AZAROAREN 12KOA. HONEN BIDEZ, ONETSI EGITEN DIRA SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN PEKO ZERGADUNEK EGITEN DITUZTEN ERAGIKETA EKONOMIKOEN ERREGISTRO-LIBURUKO KONTABILITATE-MUGIMENDUEN KAPITULUAREN ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK ETA TEKNIKOAK.

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. Hala, bada, 5/2020 Foru Araua onartuta, Bizkaian aurrerapen kualitatibo bat egin da BATUZ izeneko estrategia integralaren inplementazioan, zeinaren bidez jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien tributazioa kontrolatzen baita, edozein delarik ere eragiketen tamaina edo bolumena. Halaber, aurrerapauso bat da zergadunei tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean.

Ondoren, 5/2020 Foru Arauaren edukia garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretua onetsi da, zeinaren bidez BATUZ proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen baitira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia.

Sozietateen gaineko zergaren zergadunei dagokienez, aipatutako uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, pertsona juridikoentzako eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat egin behar dutela ezarri da (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 122 ter artikulua). Oro bat xedatu da betebehar hori Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez bete behar dela, horrez gainera, erregistro-liburua zer kapituluk osatzen duten zehaztu da, eta betebehar horren gainerako elementuen zehaztapena geroago egingo den erregelamenduzko garapenerako utzi da.

Halaber, zehaztu da ezen, erregistro-liburuko faktura eginen kapituluan, sinadura elektronikoa duten fitxategi informatikoak erregistratuko direla, fakturazioa TicketBAI sistemaren bidez egiteko betebeharrari dagozkionak.
Bestalde, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren erregelamenduzko garapena Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 47 ter artikuluan zehaztuta dago, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 39 undecies–39 novodecies bitarteko artikuluetan ere.

Honela, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 39 undecies artikuluak ezarritakoaren arabera, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko da, hura osatzen duten erregistroak modu elektronikoan emanez; erregistro-liburu hori osatzen duten idatz-oharren emate elektronikoa, berriz, fitxategien truke elektroniko automatikoaren bidez gauzatuko da, edo, hala badagokio, dagozkion formulario elektronikoen bidez. Hori guztia bat etorriko da Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak onetsiko dituen zehaztapen tekniko eta funtzionalekin.

## BOB — N.º 224 — 20/11/2024

### ORDEN FORAL 422/2024, DE 12 DE NOVIEMBRE, DE LA DIPUTADA FORAL DE HACIENDA Y FINANZAS, POR EL QUE SE APRUEBAN LAS ESPECIFICACIONES FUNCIONALES Y TÉCNICAS DEL CAPÍTULO DE MOVIMIENTOS CONTABLES DEL LIBRO REGISTRO DE OPERACIONES ECONÓMICAS DE LOS CONTRIBUYENTES DEL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES.

Con la aprobación de la Norma Foral 5/2020, de 15 de julio, por la que se establece un sistema integral de control de los rendimientos de las actividades económicas, así como medidas para facilitar el cumplimiento de las obligaciones tributarias, mediante la modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la Norma Foral del Impuesto sobre Patrimonio y la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, se ha realizado un avance cualitativo en Bizkaia en la implementación de la estrategia integral denominada BATUZ, de control de la tributación de todas las personas o entidades que desarrollan actividades económicas, con independencia de su tamaño o volumen de operaciones, así como en el establecimiento de nuevos modelos de gestión que faciliten a los y las contribuyentes el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

Posteriormente, en desarrollo de su contenido, se aprobó el Decreto Foral 82/2020, de 8 de septiembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se desarrollan las obligaciones tributarias del proyecto BATUZ, mediante la modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, el Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia y el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación.

En relación con los contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades, mediante la Norma Foral 5/2020, de 15 de julio mencionada, se establece la obligación de llevanza de un libro registro de operaciones económicas para las personas jurídicas, recogida en el artículo 122 ter de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, determinándose los capítulos que lo componen y remitiéndose la concreción del resto de elementos de dicha obligación a un futuro desarrollo reglamentario.

Además, se especifica que en el Capítulo de facturas emitidas del libro registro se registrarán, los ficheros informáticos firmados de forma electrónica a que se refiere la obligación de facturación mediante el sistema TicketBAI.
En cuanto al desarrollo reglamentario relativo al libro registro de operaciones económicas de los contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades, se concreta en el artículo 47 ter del Reglamento del Impuesto Sociedades y en los artículos 39 undecies a 39 novodecies del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia.

De este modo, el mencionado artículo 39 undecies del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, establece que el libro registro de operaciones económicas deberá llevarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante el suministro electrónico de los registros que lo componen y que el suministro electrónico de las anotaciones que componen dicho libro registro se realizará mediante el intercambio automático electrónico de ficheros o, en su caso, a través de los correspondientes formularios electrónicos, todo ello conforme a las especificaciones técnicas y funcionales que se aprueben por

Orden Foral del diputado o diputada foral de Hacienda y Finanzas.

Arestian ere aipatu den Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 39 novodecies artikuluan ezarritako kontabilitate-mugimenduen kapituluari aplikatu beharreko baldintza eta zehaztapen tekniko eta funtzional bereziak direla eta, hain zuzen ere kontuan hartuta horren edukia Sozietateen gaineko Zergaren zergaldia itxi ondorengo lau hilabeteetan aurkeztu beharko dela fitxategi informatiko baten bidez, ezarri zen egokia zela Sozietateen gaineko Zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua egitea garatzen duten zehaztapen arauemaile eta teknikoak foru agindu bereizi batean onestea, Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez alegia, kontabilitate-mugimenduen kapitulua izan ezik (1582/2021 Foru Agindua, irailaren 24koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuarena).

Debido a las singulares condiciones y especificaciones técnicas y funcionales que son de aplicación al Capítulo de movimientos contables previsto en el artículo 39 novodecies del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia citado, cuyo contenido deberá presentarse dentro de los cuatro meses posteriores al cierre del periodo impositivo del Impuesto sobre Sociedades mediante un fichero informático, se aconsejó la aprobación en una Orden Foral separada de las especificaciones normativas y técnicas que desarrollan la llevanza del libro registro de operaciones económicas de los contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades a través de la sede electrónica de la Diputación Foral, con excepción del capítulo de movimientos contables (Orden Foral 1582/2021, de 24 de septiembre, del diputado foral de Hacienda y Finanzas).

Une honetan, Foru Agindu honen bidez, Sozietateen gaineko Zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko kontabilitate-mugimenduen kapituluaren zehaztapen funtzional eta teknikoak onartzearen gaiari ekiten zaio.

Ahora, mediante la presente Orden Foral se aborda la aprobación de las especificaciones funcionales y técnicas del capítulo de movimientos contables del libro registro de operaciones económicas de los contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades.

Kapitulu horri dagokionez 8/2023 Foru Arauak, azaroaren 22koak, Batuz sistema nahitaez eta behin betiko ezartzeko prozesua antolatzeko beharrezko xedapenak ezartzen dituenak, hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra sartzen du Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan; xedapen horren xedea da zehaztea zerga horren zergadunak ez direla behartuta egongo 2022, 2023 eta 2024 zergaldiei dagokien kontabilitate-mugimenduen kapitulua aurkeztera eta, aldi berean, kontabilitate-mugimenduen kapitulu hori betetzea eta aurkeztea borondatezkoa izango dela 2025eko zergalditik aurrera eta aurkezten dutenek izango direla Zerga Administrazioari Zergari buruzko Foru Arauaren 126. artikuluaren 7. apartatuan aipatzen den autolikidazioaren zirriborroa eskura jartzeko eskatu ahal izango diotenak.

En relación con dicho Capitulo la Norma Foral 8/2023, de 23 de noviembre, que establece las disposiciones precisas para ordenar el proceso de implementación obligatoria y definitiva del sistema BATUZ, introduce una disposición transitoria trigésima primera en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades al objeto de determinar que los contribuyentes de dicho impuesto no estarán obligados a presentar el capítulo de movimientos contables correspondiente a los períodos impositivos 2022, 2023 y 2024 y que la cumplimentación y presentación del citado Capítulo de movimientos contables a partir del período impositivo 2025 será voluntaria, y aquellos que lo presenten serán los que puedan solicitar a la Administración tributaria la puesta a disposición del borrador de autoliquidación a que se refiere el apartado 7 del artículo 126 de la Norma Foral del impuesto.

Edukiari dagokionez, foru agindu honek, batetik, zehazten du Sozietateen gaineko Zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko kontabilitate-mugimenduen kapitulua a priori aurkeztu behar duten zergapekoak zeintzuk diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko betebeharra ezartzen du.

En cuanto a su contenido, esta Orden Foral determina, en primer lugar, quienes son los obligados tributarios que a priori deben presentar el capítulo de movimientos contables del Libro registro de operaciones económicas de los contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades y establece la obligación de su llevanza a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Idatzoharrak elektronikoki egiteko prozedurari dagokionez, bi modu egongo dira: bai fitxategi informatikoen truke automatikoaren bidez –Bizkaiko Foru Aldundiaren sarrera-zerbitzua erabiliz–, bai web-aplikazio bat erabiliz. Sistema horiek biak gaituta daude Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

En cuanto al procedimiento para realizar el suministro electrónico de las anotaciones, este podrá realizarse bien mediante el intercambio automático de ficheros informáticos a través del servicio de entradas de la Diputación Foral de Bizkaia, bien mediante la utilización de una aplicación web, estando estos dos sistemas habilitados en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Aurreko paragrafoan aipatutako fitxategi informatikoen formatua eta diseinua direla eta, fitxategien edukia zehazten duten erregistro-eremuetara egokitu beharko dira (eremu horiek foru agindu honen eranskinean jaso dira), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jasota daudenak erabili beharko dira.

En lo que al formato y diseño de los ficheros informáticos mencionados en el párrafo anterior se refiere, estos deberán ajustarse a los campos de registro en que se concreta el contenido de los mismos, que figuran en el anexo de la presente Orden Foral, y su formato y diseño deberán ser los que consten en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

GAO — 220 zk. — 2024/11/14

448/2024 FORU AGINDUA, AZAROAREN 11KOA, «ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOAREN URTEKO AITORPEN INFORMATIBOA» IZENA DUEN 159 EREDUA ONETSI ETA HURA AURKEZTEKO MODUA ETA PROZEDURA EZARTZEN DITUENA.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 90. artikuluan jasotzen duenez, pertsona fisiko edo juridikoak, publiko nahiz pribatuak izan, eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak behartuta daude beste pertsona batzuekiko erlazio ekonomiko, profesional edo finantzarioetatik eratortzen diren era guztietako datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak Zerga Administrazioari ematera zerga alorrean garrantzitsuak direnean.

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onesten duenak, informazio betebehar batzuk arautzen ditu 72. artikuluan energia elektrikoa hornitzen duten konpainiei dagokienez, eta betebehar horiek betetzeko energia elektrikoaren kontsumoari buruzko urteko aitorpen informatiboa (159 eredua) onetsi zen azaroaren 24ko 1012/2010 Foru Agindua dela medio. Energia elektrikoaren merkaturatzaileek hornidura kontratu bakoitzari buruz eman beharreko informazioa jasotzen da eredu horretan, eta, zehazki, kontratatutako potentzia eta kilowatten urteko kontsumoa.

Hala ere, zenbait inguruabarrek gomendatzen dute aitorpen informatibo hori eguneratzea, haren aurkezpenak berekin dakartzan informazio obligazioak betetzea errazteko.

Alde batetik, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baitira kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko bestelako neurriak, elektrizitatearen gizarte bonua aplikatzeko bete beharreko baldintzak jasotzen ditu. Errege dekretu horretan kontsumitzaile kalteberari, kaltebera larriari edo gizarte bazterketako arriskuan dagoenari buruz ematen den definizioari erreparatuta, gizarte bonu horrek deskontu bat dakar berekin onuradunen faktura elektrikoan, fakturatutako zenbatekoa murriztea dakarrena.

Era berean, energia berriztagarrien erabilera areagotzeko ahalegin globalarekin bat etorriz, gaur egun gero eta kontsumitzaile gehiagok aukeratzen dituzte energia elektrikoaren beste autokontsumo alternatiba batzuk, jatorri fotoboltaikokoak nagusiki. Horrelakoetan, apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz (dekretu horren bidez arautzen dira energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak), kontsumitzaileek posible dute energia komertzializatzen duten enpresekin kontratu bat sinatzea sortutako energiaren autokontsumorako, eta horren ordainean konpentsazio bat jasotzea banaketa elektrikoko sarera kontsumitu gabe isurtzen den soberako energiagatik. Energia elektrikoa merkaturatzen dutenekin egiten den kontratu

Boletín Oficial de Gipuzkoa

BOG — N.º 220 — 14/11/2024

ORDEN FORAL 448/2024, DE 11 DE NOVIEMBRE, POR LA QUE SE APRUEBA EL MODELO 159 «DECLARACIÓN INFORMATIVA ANUAL DE CONSUMO DE ENERGÍA ELÉCTRICA», Y SE DETERMINA LA FORMA Y PROCEDIMIENTO PARA SU PRESENTACIÓN.

El artículo 90 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, así como las entidades en régimen de atribución de rentas, estarán obligadas a proporcionar a la Administración tributaria toda clase de datos, informes, antecedentes y justificantes con trascendencia tributaria o deducidos de sus relaciones económicas, profesionales o financieras con otras personas.

Al objeto de cumplir con las obligaciones de información de las compañías suministradoras de energía eléctrica reguladas en el artículo 72 del Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, se aprobó la declaración informativa anual de consumo de energía eléctrica (modelo 159) mediante la Orden Foral 1012/2010, de 24 de noviembre, que recoge el suministro de información realizado por las comercializadoras de energía eléctrica respecto de cada contrato de suministro, en particular, de la potencia contratada y el consumo anual de kilovatios.

No obstante, diversas circunstancias aconsejan actualizar este modelo de declaración informativa, en aras de facilitar el cumplimiento de las obligaciones informativas inherentes a su presentación.

Por un lado, el Real Decreto 897/2017, de 6 de octubre, por el que se regula la figura del consumidor vulnerable, el bono social y otras medidas de protección para los consumidores domésticos de energía eléctrica, recoge los requisitos que deben cumplirse para que resulte de aplicación el bono social de electricidad. Atendiendo a la definición de consumidor vulnerable, consumidor vulnerable severo o consumidor en riesgo de exclusión social, contenidas en el citado real decreto, este bono social conlleva un descuento en la factura eléctrica de sus beneficiarios que se traduce en una reducción del importe facturado.

Asimismo, en consonancia con el esfuerzo global por el incremento del uso de energías renovables, en la actualidad cada vez son más numerosos los supuestos en los que los consumidores optan por alternativas de autoconsumo de energía eléctrica, principalmente de origen fotovoltaico. En tal caso, y de acuerdo con lo dispuesto en el Real Decreto 244/2019, de 5 de abril, por el que se regulan las condiciones administrativas, técnicas y económicas del autoconsumo de energía eléctrica, pueden suscribir con las comercializadoras de energía un contrato para el autoconsumo de la energía generada, recibiendo una compensación por la energía excedentaria no consumida que se vierta a la red de distribución eléctrica. Este contrato con las comercializadoras de energía eléctrica se materializa en una reducción del

horrek murriztu egiten du energia ez-berriztagarriaren kontsumoa eta, ondorioz, higiezinen kalifikazio energetikoa hobetzen da.

Energia elektrikoaren kontsumoari eta ekitaldian fakturatutako zenbatekoari buruz gaur egun ditugun datuak osatzeko, energia elektrikoaren merkaturatzaileek eman beharreko informazioaren artean beharrezkoa da sartzea energia elektrikoaren hornidura kontratuen titular direnei buruzkoa, gizarte bonuaren onuradun direnean, bai eta autokontsumo kontratuen titular direnena ere.

Aitortzaileen profila kontuan hartuta eta aitorpen honetan aurkeztu behar den informazioaren bolumenari eta formatuari erreparatuta, aurkezpena bide elektronikoz egin behar da.

consumo de energía no renovable, con la consiguiente mejora en la calificación energética de los inmuebles.

Con el objetivo de completar los datos sobre consumo de energía eléctrica e importe facturado en el ejercicio de los que actualmente se dispone, se incluye entre la información a suministrar por las comercializadoras de energía eléctrica la relativa a los titulares de contratos de suministro de energía eléctrica que sean beneficiarios del mencionado bono social y de titulares de contratos de autoconsumo de energía.

Teniendo en cuenta el perfil de los declarantes, el volumen y formato de la información a presentar en esta declaración, debe realizarse por vía electrónica.

## GAO — 230 zk. — 2024/11/28

### 54/2024 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 26KOA, BERRESKURATZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOTIK (BEM) DATOZEN EUROPAKO FUNTSAK HOBETO INPLEMENTATZEKO GOBERNANTZA-EGITURAREN ESPARRU OROKORRA ARAUTZEKOA.

I

COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta osasun krisiaren ondorioz, Europar Batasuneko estatu kideek larrialdi neurri koordinatuak hartu zituzten azkar, herritarren osasuna babesteko eta ekonomiaren kolapsoa saihesteko. Arazo horiei erantzun koordinatua eta solidarioa emateko, irismen handiko neurri sorta adostu zuen 2020ko uztailaren 21eko Europar Kontseiluak. Neurri horiek bat egiten dute 2021-2027ko urte anitzeko finantza esparruarekin eta Suspertzerako Europako Bitartekoa (Next Generation EU) abian jartzearekin.

Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, Suspertzerako Next Generation EU Bitartekoa arautzen du. Bitarteko horrek, zeinaren diru zuzkidura 750.000 milioi eurokoa baita, bi tresna nagusi ditu: Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM) eta REACT-EU Funtsak (Kohesiorako eta Europako Lurraldeak Suspertzeko laguntzak).

Berreskuratzerako Europako Bitartekoaren funtsekin lotutako proiektuak gauzatzeak planteatzen duen erronkari erantzungo dion administrazio moderno eta arin bat izateko modernizazio prozesuari ekiteko asmoz, Errege lege Dekretu hau onetsi zen: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko (BEEP).

Ondoren, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren bidez, zeinaren bitartez BEEParen kudeaketa sistema konfiguratzen baita, zehazten dira Europar Batasuneko araudiak BEEPa gauzatzeko ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko gidalerroak, dagozkien organoen kudeaketari dagokionez. Era berean, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua onetsi zen, zeinaren bidez ezartzen baita zer prozedurari jarraituko zaion eta zein formatu izan behar duen Estatuko, Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateek eman beharreko informazioak, BEEParen ataletako neurrien mugarri eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko eta neurri horien aurrekontu eta kontabilitate exekuzioaren jarraipena egiteko.

Ondoren, Europako Batzordeak interes gatazka prebenitu, detektatu eta zuzentzearen arloan BEMaren onuradun diren estatu kideei eskatzen dizkien errekerimenduak betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan oinarrituta, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua eman zen, BEEPa

## BOG — N.º 230 — 28/11/2024

### DECRETO FORAL 54/2024, DE 26 DE NOVIEMBRE, POR EL QUE SE REGULA EL MARCO GENERAL DE LA ESTRUCTURA DE GOBERNANZA PARA UNA MEJOR IMPLEMENTACIÓN DE LOS FONDOS EUROPEOS PROVENIENTES DEL MECANISMO DE RECUPERACIÓN Y RESILIENCIA (MRR).

I

La crisis económica y sanitaria provocada por la COVID-19 hizo que los Estados miembros de la Unión Europea adoptaran con rapidez medidas coordinadas de emergencia para proteger la salud de la ciudadanía y evitar el colapso de la economía. Como respuesta coordinada y solidaria a estos problemas, el Consejo Europeo del 21 de julio de 2020 acordó un paquete de medidas de gran alcance. Estas medidas aúnan el marco financiero plurianual (MFP) 2021-2027 y la puesta en marcha de un Instrumento Europeo de Recuperación (Next Generation EU).

El Reglamento (UE) 2020/2094 del Consejo, de 14 de diciembre de 2020, regula el Instrumento de Recuperación Next Generation EU que está dotado con hasta 750.000 millones de euros y cuyos instrumentos principales son el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) y los Fondos REACT-EU de Recuperación para la Cohesión y los Territorios de Europa.

Con objeto de acometer un proceso de modernización para contar con una Administración moderna y ágil, capaz de responder al desafío que la ejecución de proyectos vinculados a los fondos del Instrumento Europeo de Recuperación plantea, se aprobó el Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR).

Posteriormente, mediante la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del PRTR se concretan las directrices que garanticen el cumplimiento coordinado de los requerimientos establecidos por la normativa comunitaria para la ejecución del PRTR en cuanto a gestión por parte de los órganos correspondientes. A su vez, se aprobó la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del PRTR.

Posteriormente, con objeto de cumplir con los requerimientos en el ámbito de la prevención, detección y corrección del conflicto de interés que la Comisión Europea exige a los Estados Miembros beneficiarios del MRR sobre la base del artículo 22 del Reglamento 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, se dicta la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero,

egikaritzen duten prozeduretan interes gatazka sortzeko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

II

